

Parte hartu eta erabaki!

OOG-RAKO HAUTESKUNDEAK
2024

GURASO-ELKARTEAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA

Guraso-elkarteok zuzenean izenda dezakegu pertsona bat OOGko kide izateko, **ohiko hautaketa-prozesutik igaro gabe**. Ez baduzue, aldatu nahi baduzue edo agintaldia amaitzen bada, orain da unea! Hori egiten ez baduzue, elkarteak OOGn duen ordezkaritza zuzena galduko du.

- ❗ GARRANTZITSUA: URRIAREN 21A BAINO LEHEN ZUEN ORDEZKARIAREN IZENA IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI AURKEZTU*

>Eredu bat behar baduzue jarri harremanetan zuen federazioarekin.

BETE BEHARREKO POSTU HUTSEN KOPURUA EZAGUTZEA ETA HAUTAGAIK LORTZEA

- Galdetu zuen ikastetxeko zuzendaritzari zenbat guraso-plaza huts bete behar diren hautaketa-prozesu honetan.

- **Prestatu IGEaren hautagaitza**. Bilatu zuen elkartearekin eta ikastetxeko egunerokotasunarekin lotura duten eta eskola hobetu nahi duten pertsonak.

- **Hautagaien kopurua postu hutsen kopurua baino handiagoa izan behar da. Oso garrantzitsua da ordezeko pertsonak izatea, egon daitezkeen bajak bete ahal izateko**. Horrela, OOGn familiari dagokien ordezkaritza bermatzen dugu.

- ❗ GARRANTZITSUA: HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA URRIAREN 21ETIK AZAROAREN 4RA BITARTEKOA DA.

FAMILIEI GURASOEN ELKARTEAREN HAUTAGAITZAREN BERRI EMATEA ETA BOTOA EMATERA ANIMATZEA

Egin kanpaina zuen ikastetxeko familien artean, zuen ohiko komunikazio-kanalen bidez:

- Jakinarazi IGEak hautagaiak aurkeztu dituela.

- Hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eman (bozketa-datak, posta bidezko botoa...). Eskura duzue familientzat prestatu dugun informazio-orria.

- Eskatu ikastetxeko zuzendaritzari familiei hauteskunde-prozesuaren berri emateko eta IGEak prestatutako materiala bidaltzeko.

- Animatu zuen ikastetxeko familiak botoa ematera.

- ❗ GARRANTZITSUA: HAUTESKUNDEAK AZAROAREN 7 ETA 25A ARTEAN EGINGO DIRA*

**Berretsi data guztiak zuen ikastetxeko zuzendaritzarekin.*

**IGEENTZAKO
GOMENDIOAK**

info+ ehige.eus

BIGE: 94 416 93 60
bige@bige.eus

BAIKARA: 943 32 72 08
baikara@baikara.eus

DENON ESKOLA: 945 25 61 62
info@denoneskola.eus

ehige 

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Konfederazioa